

## LUZARRA KALEA

Goiuria Lauria

*Bilbao. 13 urte*

*Ipuin hau drogadikto izan ostean, jadanik rehabilitatuta daudenei dedikatzen diet, baita ez direnei ere, zer gerta daitekeen jakin dezaten*

Luzarra kalea

Bazen behin kale bat oso siniestroa zena, Luzarra kalea. Kale honetan drogadiktoak «ganbeluak», atrakadoreak, etab... zeuden. Jendea handik pasatzerakoan atrakatua izaten zen. Hango jendea oso beldurtuta zegoen. Hain beldurtuta, ezen ez ziren etxetik irtetzen. Poliziak ere ez ziren ausartzen handik pasatzen.

Egun baten, guzti honetaz nekatuta, batzar nagusi bat egin zuten auzoko guztiek, eta hauxe esan zen:

— Zerbait egin behar dugu. Ezin da horrela jarraitu. Poliziek ez dute ezer egiten gu babesteko. Baina auzoko batzuk detektibe pribatu on bat kontratatzea pentsatu dugu, nortzuk diren «ganbeluak» eta atrakadoreak jakin eta zerbait egin dezagun.

— Bai! Bai! Horixe da! Egin dezagun hori.

Esan zuten besteek bat eginik. Eta halaxe izan zen.

Detektibe bat kontratatu zuten eta detektibe hori ni nintzen. Ez nekien nola hasi. Hiru egun pasatu nituen lo egin gabe guztia planeatzen eta ikertzen. Azkenean amaitu nuen, eta prestatu bezain laster, lanean hasi nintzen.

Lehenengo eta behin txarto jantzita joan behar nuen, susmorik ez altxatzeko, eta gero, kaleko hizkuntza ikasi. Guzti honetan bi aste egon nintzen eta banekien guztia.

Kalean nengoela drogadikto guztiak bildu nituen; ahal izan nituen gehienak, eta ni «ganbelu» bat nintzela esan nien; eta nik emango niela droga; eta inoiz ez nuela salduko. Hau noski, gezurra zen, zeren eta nik emango niena antidoto bat baitzen, drogaren aurka. Antidoto hau nik egingakoa zen laborategian, eta bezagoen animaliekin frogatua, eta pertsona batekin.

Urte bat eta erdi pasatu ondoren ikusten zen sendatuta zeudela guztiak; eta berriro ere batu nituen; eta egia kontatu nien; eta oso pozik jarri ziren eta zoriondu ninduten. Urte eta erdi horretan ikusten zen delinkuentzia gutxiagotu zela.

Gero batzar nagusi bat egin nuen nik, auzokoe-kin eta jadanik drogadiktoak ez zirenekin, guztiak batera.

Auzokoak beldurtu ziren. Baina drogadiktoek eta nik, kontatu egin genien gure istorioa. Batzar

horretan, drogadiktoek zekiten guztia konfesatu zuten. Konfesio horiek askorako balio izan zuten, nik «ganbeluak» atxilotu nituen eta kartzelara bidali.

Oraingoan, berriro, beste hiru gau lo egin gabe gelditu nintzen, nire laneko mahaian. Ez nekien zer egin, baina azkenean guztia planeatu nuen. Luzarra kaleko plano egin nuen, alkantariletako bideak eta guztia jarritz.

Delinkuenteak oso moskeatuta zeuden, zeren eta bazekiten neu nembilela handik. Goizean altxatu nintzen eta nire plano guztiak desagertuta zeuden. Argi zegoen delinkuenteak ba zekitela non bizi nintzen eta nor nintzen. Orain kontuz kontuz ibili behar nuen.

Nire apartamendua oso ondo behatu nuen, eta hatzmarka batzuk aurkitu nituen. Orduan neure laborategira eraman eta jakin nuen JON BELDERGER jauna zela. Gero komisaldegiko informetan begiraturaz, delinkuente oso arriskutsua zela irakurri nuen, eta askotan soldatapeko hiltzaileak zituela; drogekin erlazionatuta zegoela ere bai.

Epailearengana joan nintzen Jonen etxea errejistratzeko baimena eman ziezadan, baina ezet esan zidan. Nik, orduan, zerbait arraroa usaindu nuen. Eta pentsatu nuen «ziur aski Jonek ordaindu dio, eta epaile baten aurka ezin dut ezer egin». Beraz Luzarrara bueltatu nintzen eta itxaron

nuen Jonek bere etxetik irten arte. Gero inor ez zegoela etxean pentsatu nuen, eta noski ez zegoen inor etxean. Orduan, hau zen nire urrezko aukera. Etxe hartan sartu nintzen eta erregistrazten hasi nintzen.

Hor bai zeudela helbideak, telefonoak..., eta garrantzitsuena, bere agenda.

Atea entzun nuen bapatean, Jon jauna zen, eta izkutatu egin nintzen, baina berriro joan zen. Presa zuela zirudien. Beraz, agenda, helbideak, telefonoak... eta ahal izan nuen guztia hartu nuen, eta bere atzetik joan nintzen.

Beste gizon batekin aurkitu zen. Hurrengo pertsonaia hau «X» jauna izango zen.

Bikote hau gaztetxe batetan sartu zen, eta neu ere haien atzetik joan nintzen.

Gaztetxean nengoela, droga banatzen zeudela ikusi nuen. Hara joan nintzen, nire detektibe plaka erakutsi eta atxilotzeko prest nengoenean, buruan kolpe seko bat eman zidaten eta hantxe gelditu nintzen ni lurrean.

Esnatu nintzenez ospitalean negoen. Esnatu bezain laster ihes egin nuen nire burukominarekin. Handik irtetzerakoan portura joan nintzen, horixe jartzen baitzuen Jonen agendan, eta han zeuden Jon eta «X» jauna kargamendu berria itxaroten. Noski, atxilotu egin nituen Jon eta X baita itxasontzian zetorren jendea ere, eta droga

konfiskatu nuen. Geroago jakin nuen «X» jauna, David Hamer deitzen zela.

Orain guztia erreza zen, delinkuenteek ez zuten inor agintzeko eta urduri jarriko ziren. Eta halaxe izan zen, pizkanaka jausten joaten ziren, eulien antzera. Baina oraindik gelditzen ziren batzuk. Beraz, haien trapu zikinak argitara atera nituen. Eta behin, delinkuenteak leku batean bildu nituen eta aldi berean poliziak. Orduan poliziek delinkuenteekin aurkitzerakoan atxilotu egin zituzten.

Orduan, epailea bakarrik falta zen, eta epailea atxilotzeko konfesio batzuk falta ziren. Konfesio horiek lortzea asko kostatu zitzaidan, baina azkenik lortu nituen.

Honetarako lau urte behar izan nituen, baina merezi izan zuen, zeren eta orain Luzarra kalea oso kale lasaia baita.